

LITERATURA UNIBERTSALA



SHERWOOD ANDERSON

Winesburg, Ohio

Joannes Jauregi

Sherwood Anderson
Winesburg, Ohio

Joannes Jauregi
Itzultzailea

Jatorrizko izenburua eta urtea:
Winesburg, Ohio, 1919

1. argitalpena: 2022ko azaroan.

© Azaleko margolanarena: 2022, Alain Urrutia

© Itzulpenarena: 2022, Joannes Jauregi

© Hitzaurrearena: 2022, Joannes Jauregi

© Argitalpen honena: 2022, EREIN eta IGELA argitaletxeak

Inprimatzailea: Itxaropena S.A.

ISBN: 978-84-9109-827-0

LG: D 1067-2022

Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu.


Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren diru-laguntza jaso du.

Liburu honen itzulpena Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkartearekin Literatur Ondare Unibertsaleko Obra Nagusien Bilduma euskarara itzultzeko sinatutako hitzarmenaren barruan burutu da.



SHERWOOD ANDERSON

1876-1941



Legenda:

- | | |
|-----------------------------------|----------------------|
| 1. Winesburg Eaglerin erredakzioa | 5. Tren-geltokia |
| 2. Hernen saltokia | 6. New Willard House |
| 3. Sinninen burdindegia | 7. Feria-eremua |
| 4. Biff Carteren jantokia | 8. Ur-depositua |

HITZAURREA

Idazlea

Sherwood Anderson, gaurko egunez pribilegiozko tokian egon arren AEBetako literaturaren kanonean, itzuri egiten zaio idazle handiaren kategoriari. Haren lanak klasikoan zerrendetan eta eskola-curriculumetan agertzen dira, eta balio handia aitortzen zaio haren bitartekari-rolari, XIX. mendeko AEBetako tradizio naturalista-kostunbrista jaso eta XX. mendeko narratiba modernistari bidea zelaitzeagatik. Modernista goiztiartzat jotzen dute askok, eta eragin nabarmena izan zuen ondorengo idazle ugarirengan, besteak beste William Faulknerren eta Ernest Hemingwayren zuzeneko mentore izan baitzen. Hala eta guztiz ere, Sherwood Andersonnek berak aitortzen zuen *minor writer* bat zela, idazle txikia edo garrantzigabea alegia, inportanteagoa seguru asko bide-erakusle eta eragile gisa sortzaile gisa baino. 1925eko *Dark Laughter* nobelak bakarrik ekarri zion salmenta-arrakastarik, eta ibilbide osoan ez zuen kritikaren berealdiko babesik jaso, *Winesburg, Ohio* honetan eta beste kontakizun solte batzuetan salbu. Erreakzio hori, partez, garatu zuen estilo bereziari egotz dakioke, zeina baitzen, Irving Howe kritikariaren arabera, Andersonen

bertute eta, era berean, hertsadura nagusia: «istorio gehienak tonalitate minorrean konposatuak dira, *pathos* apal baten doinuan, eta hor datza Andersonen talentuaren izaera, bai eta muga bera ere».

1876. urtean jaio zen Sherwood Anderson. Harekin batera munduratu ziren Jack London eta Natalie Clifford Barney, bai Tom Sawyer eta Michel Strogoff ere; George Sand ere urte hartan bertan hil zen. Ohioko herri txiki batean eman zuen Andersonek haurtzaroa, eta hango bizimodua eta giroa idazketarako ongarriztat hartu zituen heldutan, batik bat *Winesburg, Ohio* honetako kontakizunetan. Aitaren alkoholismoak familia diru-premian jarri zuenez, idazle izango zen mutilak eskola baztertu eta orotariko enplegu txikiak hartzen hasi behar izan zuen; besteak beste, egunkari-banatzaille, mandatari, urketari, unai, zaldizain, inprimategiko laguntzaille, soldadu eta fabrikako langile aritu zen. Idazle autodidakta izan zen, eta Chicagon urratu zuen bere ibilbide literarioa, aldi berean zenbait enpresaren jabe zelarik. Sherwood Andersonen bizitzak, idazle enpresariaren bizi-martxa trankilean, badu han-hemenka emoziozipritin jakingarriren bat edo beste. Guztira lau bider ezkondu zen. Ernest Hemingwayk, haren babespeko ohiak, satirizatu egin zuen maisua –bai haren *Dark Laughter* nobela arrakastatsua ere– *Torrents of Spring* eleberrian. 1912an, nerbio-asaldura larri bat izan zuen Andersonek, eta, lau egun desagertuta eman ondoan, orientazioa galdua eta laguntza eske sartu zen botika batera, nor zen ere ez zekiela. 1941eko

martxoan hil zen, Virginia Woolf baino hogei egun eta Marina Tsvetaieva baino bost hilabete lehenago, Jorge Luis Borgesek *El jardín de los senderos que se bifurcan* argitaratu zuen urtean.

Chicagoko Pizkunde Literarioa deritzon mugimenduaren funtsezko pieza bat izan zen Anderson. 1912tik 1925 ingurura bitartean loratu zen mugimendu hura, zeinean Theodore Dreiser, Carl Sandburg, Edgar Lee Masters eta Sherwood Anderson bera gailendu baitziren. Kazetaritzarekiko lotura eta errealismoa ulertzeko molde berri bat zituzten ezaugarri Chicagoko Pizkunde Literarioko idazleek. XX. mende hasierako industrializazioaren eta urbanizazioaren ifrentzua erakustea zen haien helburua, *amets amerikar* delakoaren ezinak eta muzinak eta landa-eremuaren gainbehera adieraziz. Mugimenduak I. Mundu Gerraren denboretan jo zuen goia: Andersonen beraren *Winesburg, Ohio* ez ezik (1919), Dreiserren *Sister Carrie* (1912), Lee Mastersen *Spoon River Anthology* (1915) eta Sandburgen *Chicago Poems* (1916) dira lanik garrantzitsuenak. 1930eko urteetarako, mugimendua sakabanatua eta aienatua zegoen erabat.

Winesburg, Ohio (edo groteskoaren begirada)

Zenbait liburuk aurreiritzi (erdi) ustelak eta gaizkiulertuak pizteko joera izaten dute, eta halakoxea dugu *Winesburg, Ohio* ere. Esaten da Andersonen lan nagusia den honek ezin hobeto erakusten duela AEBetako Mendebalde Ertaineko antigonaleko biziera, zintzo kontatzen dituela Ohioko landa-parteko giza jende

xeherean nekeak eta lanak, eta zorrotz islatzen dituela landaren eta hiri gero eta industrial eta urbanoagoaren arteko tirabirak. Eta bai, egilea nabarmen ahalegindu zen, bai lortu ere, haurtzaroan eta gaztaroan bertatik bertara ezagutu zituen egitate horiek mingots-ukituko errealismo batean destilatzen. Ez da ahaztekoa, ordea, pertsonaien barne-munduek gainezkatzen dituztela Winesburg imajinatu honetako bazter guzti-guztiak –kaleak, soroak, dendak, etxaldeak–, Andersonen kezka printzipala ez baitzen herri-giroa eta hango pasadizoak xehatzea, baizik eta pertsonaien psikearen barrunbeak eta leize-zuloak arakatzea, groteskoaren begiradaren bidez.

Zer da, bada, groteskoaren begirada? Aurreneko ipuinean bertan esplikatzeko du Sherwood Andersonnek giza psikologiari buruzko bere teoria partikularra, liburu osoaren poetika modura: «pertsonaren batek egiaren bat beretzat hartu, bere egia propiotzat jo eta haren bitartez bizitzen saiatzen bazen, istantean bertan grotesko bihurtzen zen, eta besarkatutako egia hura, berriz, gezur». Teoria literarioa da zientifikoa baino gehiago, eta huraxe darabil Andersonek bere pertsonaiak aztertzeko; ikuspegi horretatik, groteskoak dira liburuko hogeita bi ipuinetako pertsonaiak. Liburu honetan ez dago pertsonaien egiantzeko azterketa psikologikorik, ezpada suerte guztietako giza figura akastunen potreta desitxuratuak eta, barka erredundantzia, *groteskoak*. Porrot-sentipena erantzi ezinda dabilzan koitaduen aldra bat osatzen dute; besteekin komunikatu nahi eta ezin batean katigatuta

geratu dira denak, herrian noraezirik, nor bere zorigaitz txiki-handietan preso. Orotarikoak dira pertsonaiak, gazte zein zahar, gizon zein emakume, kanpotar zein bertako, eta herri-giroaren itotasunetik atera ezina dute guztiek ezaugarri. Denek daukate egiaren bat fuerte-fuerte helduta, Andersonek liokeen bezala, eta egia horrek zanpatuta bizi dira denak. Halere, gutxiz gehienak ailegaten dira errebelazio- edo epifania-istant ia magikoren batera, aurkitzen diren kinka mudatzen edo behin betiko zigilatzen duen konturatze batera, eta istant horien ehizak markatzen du ipuinen taupada narratiboa.

Irakurle bat baino gehiago harritu egingo dira, seguru asko, ikusita Sherwood Andersonen psikologismoak zein baldarra dirudien lehen begiratuan; sentimenduak «etorri» egiten zaizkie pertsonaiei, barruan «zerbait» edukitzen dute hitzez adierazi ezinezkoa, barne-bulkada esplikagaitz eta eutsiezinak izaten dituzte, bai eta grinak, sukarraldiak eta atakeak ere. Groteskoen barne-mundu lauso eta uher hori, gogoetaz, sentipenez eta iraganaren oroitzaz betea, gailendu egiten zaio ekintzen tramari; *in medias res* bezala hasten dira ipuinak, eta halaxe bukatzen, kasik zintzilik, pertsonaiaren bizi-pusketa bat papereratzearekin kontentaturik.

Pertsonaia guztien artean George Willard be-reizten da, herriko egunkarian lan egiten duen gazte bixkorra, hara eta hona ibiltzen dena jendearen kontuak aditzen. Winesburgeko groteskoen bakartzea eta uzkurkeria arintzen dituen izaki bakarra da George

Willard, herriko figura tristeek hari kontatzen baitizkiote beren penak eta kezkek. Komunikatu nahi eta ezinaren zaputza nagusi den herri batean, George Willard da horri guztiari aterabidea eman diezaiokeen izaki komunikatzaile bakarra. Mundu guztiarekin kontu-kontari ikusten dugun bitartean, *coming of age* betean sartuta dago, heldu bilakatzeko bidean alegia, maitasun-kontuen eta bere gizontasunaren inguruko kezka eta krisien artetik.

Lausoa eta ingeradarik gabea da groteskoen begirada, baina Sherwood Andersonen planteamendua kapaza da pertsonaien barreneko hainbat egia erdi ezkutu –edo nahita ezkutatu– erakusteko, «birjinaren egia eta pasioaren egia, aberatsaren egia eta pobrearena, aurreztailearena eta zarrastelarena, axolagabearena eta abandonatuarena», Andersonen hitzetan. Groteskoaren begiradak askabidearen ametsa dauka azpian, aukera urrun baina temoso bat gauzen sakoneko egiak ukitu eta herriko bakartzetik eta mututasunetik eskapu egiteko. Askatasun-amets horrexek bihurtzen du herria presondegi, eta horixe da, paradoxikoki, *Winesburg, Ohio*-ko tragedia: ihes beti posible baina nekez gertagarri bat edukitzea hortxe, bista-bistan, eta helmenetik kanpo halere.

Itzultzaile gisara, eskerrak eman behar dizkiet *Winesburg, Ohio* euskaratzeko lanetan modu batera edo bestera lagundu didatenei, bide honetan tankera

guztietako iruzkin, orrazketa, iradokizun, galdera eta aholkuak jasotzeko suertea izan baitut. Mila esker, beraz, Irene Barrio Solé, Nerea Urriza Lopez, Maialen Berasategi Catalán eta Ane Garcia Lopez. Zuek gabe, ezin.

Joannes Jauregi

Sherwood Anderson
Winesburg, Ohio

Liburu hau nire amaren memoriari eskainia da,
EMMA SMITH ANDERSON,
inguruan zuen guztiaz egiten zituen iruzkin zorrotzek piztu baitzida-
ten besteen bizitzen barrenaldea ikusteko gosea.

IPUINAK ETA PERTSONAK

GROTESKOEN LIBURUA

Idazlea, gizon xahar bibote-zuri bat, neke handiarekin sartzen zen ohera. Etxeko leihoak goregi zeuzkan, eta, goizean, esnatu berritan, arbolei begiratzeko gogoa izaten zuen. Arotz bat etorrarazi zuen ohea moldatuzera, leihoaren mailan gera zedin.

Zalaparta ederra atera zuen kontuak. Arotza, Gerra Zibilean soldadu ibilitakoa, idazlearen gelara sartu zen, eta ohea goratzeko plataforma bat jartzea proposatu zion. Idazleak bazituen zigarro batzuk hor nonbait, eta arotzak erre egin zuen.

Puska batean, bi gizonak ohea goratzeaz aritu ziren hizketan, eta gero beste zenbait gauzaz. Soldadua gerrako kontuekin hasi zen, idazleak berak galdetuta. Andersonvilleko kartzelan preso izandakoa zen arotza, eta anaia bat galdutakoa. Goseak hil zitzaion anaia, eta arotzak negarrari ematen zion gai hori aitatzeten zuen bakoitzean. Bibote-zuria zen, idazlea bezala, eta negarrez hastean ezpainak zimurtzen zituen, eta biboteak dar-dar egiten zion. Komeriazko itxura zuen gizon xaharrak hantxe negarrez jarrita, zigarroa ahoan zuela. Idazlearen ohea goratzeko intentzioak ahaztuta geratu ziren, eta gero arotzak bere manierara egin

zuen, eta idazleak, hirurogei urteak pasea baitzen, aulki baten arrimuan oheratu behar izan zuen gauero.

Idazlea trebeska etzan zen ohean, eta geldigeldirik geratu zen. Urteak eta urteak pasatu zituen bere bihotzaz kezkatuta. Erretzaile amorratua zen, eta bihotz dardaratsua zeukan. Sinetsita zegoen ustekabean hilko zela noizbait, eta oheratzen zenean beti pentsatzen zuen horretaz. Ez zen larritzen; aitzitik, pentsamendu horrek gauza espezial samar bat eragiten zion, ez aise esplikatzeko modukoa: hantxe, ohean sartuta, beste inoiz baino biziago sentitzen zen. Geldi-geldirik geratzen zen, eta haren gorputzak, nahiz eta ordurako zaharra eta alferreko samarra izan, bazuen zeozer barrenean gazte-gaztea zena. Emakume haurdun bat bezalakoa zen, ume jaiogabe bat ez baizik eta mutil gazte bat zeramana barrenean. Ez, mutil bat ez, emakume bat zen, gaztea, mailazko jakaz jantzia zaldun bat bezala. Absurdoa baita esplikatzen saiatzea zer zeukan barrenean idazle zaharrak hantxe zetzala, ohe goratuan, bere bihotzaren dardarizoei adi. Kontua da zer pentsatzen zuen idazleak, edo idazlearen barreneko gauza gazteak.

Idazle zaharrak, munduko pertsona guztiek bezala, makina bat sinesmen izan zituen bere bizialdi luzean. Garai batean eder askoa izandakoa zen, eta emakume franko izan zituen enamoratuta. Eta jendea ezagututakoa zen, noski, jende ugari, manera partikulari intimo batean ezagutu ere, ez zuk eta nik jendea ezagutu ohi dugun maneran. Idazleak behintzat hori uste zuen, eta kontentua hartzen zuen uste horrekin.

Alferrik da zaharrekin liskarretan hastea beren pentsamenduak direla eta.

Ohean, idazleak ametsa ez zen amets bat izan zuen. Lotan sartzen hasi baina artean ere esna zegoela, zenbait figura agertu zitzaizkion begien aurrera. Imaginatu zuen bere barreneko zer gazte eta deskribatu ezinezko hori figuren prozesio luze baten buru zihoala bere begien aurrean.

Interesgarriena, egin kontu, hauxe da: zer figura pasatu ziren idazlearen begien aurretik. Groteskoak ziren guztiak. Idazleak sekula ezagututako gizon-emakume guztiak grotesko bihurtu ziren.

Grotesko guztiak ez ziren afrusak. Batzuk dibertigarriak ziren, beste batzuk ia ederrak, eta haietako bat, emakume bat zeharo itxuragabetua, gizon zaharra oinazetzeraino zen groteskoa. Hura pasatutakoan, zaharrak txakurkume baten intziria bezalako hots bat egin zuen. Orduantxe gelan sartu izan bazina, pentsatuko zenukeen lokamutsak izaten ari zela, edo janak kalte egin ziola.

Groteskoen prozesioak ordubete eman zuen zaharraren begien aurrean, eta, gero, gauza mingarria izan arren, zaharra, atera nola edo hala ohetik, eta idazten hasi zen. Groteskoetako batzuek arrasto sakona utzi zioten memorian, eta deskribatu egin nahi zuen.

Idazlea ordubete aritu zen idazmahaian. Azkeneko, *Groteskoen liburua* izeneko liburu bat idatzi zuen. Ez zen inoiz publikatu, baina ikusi nuen behin, eta borratu ezinezko inpresioa utzi zidan gogoan.

Liburuak pentsamendu printzipal bat zuen, bitxi askoa, harrezkeroztik lagun egin didana. Hartaz akordatuta, aurretik konprenitu ezin nituen jende eta gauza ugari konprenitzeko kapaz izan naiz. Pentsamendu korapilatsua zen, baina gutxi gorabehera honela sinpletu liteke:

Hasieran, mundua gaztea zela, pentsamendu ugari zeuden, baina egia ez zen bat eta bakarra. Gizakiak berak egiten zituen egiak, eta egia bakoitza pentsamendu lauso ugariz osatua zegoen. Munduan barreiatuta zeuden egiak, eta ederrak ziren denak.

Zaharrak ehunka egia zeuzkan liburuan zerrrendatuta. Ez naiz saiaturko guztien kontu ematen. Baziren birjinaren egia eta pasioaren egia, aberatsaren egia eta pobrearena, aurreztailearena eta zarrastelarena, axolagabearena eta abandonatuarena. Ehunka eta ehunka ziren egiak, eta ederrak ziren denak.

Eta gero jendea etorri zen. Agertu ahala, bakoitzak egia bat harrapakatu zuen, eta batzuek, indartsuak baitziren oso, dozena bat hartu zituzten.

Egia horiek egiten zuten jendea grotesko. Zaharrak nahiko garatua zeukan horri buruzko teoria. Haren ustea zera zen: inork egiaren bat beretzat hartu, bere egia propiotzat jo eta haren bitartez bizitzen saiatzen bazen, istantean bertan grotesko bihurtzen zela, eta besarkatutako egia hura, berriz, gezur.

Zeuri ere pentsatzekoa irudituko zaizu zaharrak ehunka orri beteko zituela horretaz idazten, hitzez betea baitzegoen, bizi osoa idazketan alferrikaldu zuenez gero. Gaiak hainbesteko inportantzia har-

tuko zuen bere buruan, bera ere grotesko bihurtzeko arriskuan jarriko baitzen. Ez zen halakorik pasatu, nik uste, liburua publikatu ez zuen motibo beragatik. Barreneko zer gazte horrek salbatu zuen.

Idazleari ohea moldatu zion arotz zaharra, berriz, zeragatik bakarrik aitatu dut: xume askotzat jotako beste pertsona ugariri pasatzen zaien bezalaxe, azkene-rako bera bihurtu zelako ulergarrien eta maitagarrien idazlearen liburuko grotesko guztien artetik.

ESKUAK

Wing Biddlebaumen hizpidean

Ohion, Winesburgeko herritik gertu, amildegi baten ertzeko egurrezko etxe koskor baten portxe andeatuan, gizontxo potolo urtetsu bat atzera-aurrera zebilen nerbioso. Soro zabal baten bestaldean, zeinak ziape-belar txar horiak baino ez zituen eman hirus-tarekin erein arren, kamioa ikus zezakeen, handik gurdikada bat marrubi-biltzaile zetorrela, soroetatik bueltan. Biltzaileak neska-mutil gazteak ziren, eta algaraka zetozen, zalapartan kontent. Alkandora urdinarekin jantzitako mutil bat, gurditik saltatu, eta neska gazteetako bat arrastaka eramaten saiatu zen, eta hura, ostera, builaka eta protestaka hasi. Kamioan, mutilaren oinetatik hauts-hodei bat harrotu zen, eguzki sartzen hasia estali zuena. Neska baten boz mehea ailegatu zen soroan urrutitik: «Aizak, Wing Biddlebaum! Orraztu hadi, txima horiek begiak tapatuko dizkiate eta!», agindu zion bozak gizonari, burusoila baitzen, eta esku txiki nerbiosoak gelditu ezinik izaten baitzituen bere kopeta soil eta zurian, kalpar harro bat orraztuz bezala.

Wing Biddlebaum, sekula beti bere duda-muden fantasmek ikaratua eta tormentatua, inola ere ez zen,

bere ustean, herriko bizitzaren parte, bertan hogei urte bizi izanagatik ere. Winesburgeko biztanle guztien artetik bat bakarra arrimatu zitzaion sekula. George Willard, Tom Willarden semea –New Willard House hotelaren jabea bera–, adiskidantza-tankera batean hartu zuen. Winesburg Eagle egunkariko kazetaria zen George Willard, eta, aldarteka, ilusenti aldera, oinez joaten zen kamioetik Wing Biddlebaumen etxera. Orain, portxean gora eta behera zebilela, eskuak mugimendu nerbiosoan, gizon urtetsuak esperantza zeukan George Willard arratsa berarekin pasatzera etorriko zela. Biltzaileen gurdia pasatutakoan, soroan barrena egin zuen, ziape-belar luzatuen artetik, eta, hesi gainera igota, herrirako kamioa kirikatu zuen, irrikaz. Halaxe egon zen, eskuak bata besteari igurtziz eta errepidean gora eta behera begira, eta, gero, ikarak gaina harturik, korrika-saio batean bueltatu zen bere etxeko portxera, berriz gora eta behera ibiltzera.

George Willard aurrean izaten zuenean, Wing Biddlebaum, hogei urtean herriaren misterioa izandakoa, lotsa galtzen-edo hasten zen, eta haren nortasun ezkutua, zalantza propioen itsasoan gorde zalea, azalera agertzen zen munduari kuku egitera. Kazetari gaztearen bazterrean, gizona egun-argiz Kale Nagusian sartzera ausartzen zen, edo bestela zangarteka ibiltzen zen bere portxe hondatu hartan, emozioz berriketan. Boza, lehen grabea eta dardaratua izandakoa, zolitu eta ozendu egiten zitzaion, eta bizkarralde konkortua tentetzen. Arrantzaleak arraina atzera erriora botatzen duenean bezalako inarrosaldi

batekin, Biddlebaum isilkorra hizketan hasten zen, isiltasunean emandako urte luzeek gogoan pilakatu zizkioten ideiak hitzetan jarri nahirik.

Wing Biddlebaumek erruz hitz egiten zuen eskuekin. Haren behatz mehe eta adierazkorrak, beti mugimenduan, beti patrikan edo bizkarrean gordetzeko ahaleginetan, aurrera ateratzen ziren, bere espresioaren makineriaren pistoi bihurtuta.

Wing Biddlebaumen istorioa esku-pare baten istorioa da. Haien geldirik egon ezinak txori gatibatu baten hego-astintzea gogoratzen zuen, eta hortik hartu zuen gizonak izena¹. Herriko poeta ilun bati okurritu zitzaion. Eskuek kezka batean edukitzen zuten beren jabea. Gordean eduki nahi izaten zituen, eta aho bete hortz begiratzen zien beste gizonen esku trankil eta mutuei soroan berarekin lan egiten zutenean, edo ondotik pasatzen zitzaizkionean, beren abere erdi lokartuak herri-bideetan aurrera zeramatzatela.

George Willardekin solastatzen zenean, Wing Biddlebaumek ukabilak estutzen zituen, eta mahairen bat jotzen zuen, edo etxeko paretak. Horrela erosoago sentitzen zen. Solastatu nahia elkarrekin soroetan pasieran zebiltzala etorritz gero, motzondo bat bilatzen zuen, edo hesi baten gaineko ohola, eta, eskuak lanpetuta, atzera soseguz hitz egiten zuen.

Wing Biddlebaumen eskuen istorioak liburu oso bat merezi du. Gupidaz kontatuz gero, sentimendu estrainio eta ederrak piztuko lizkieke baita gizon

¹ *Wing* hitzak *hegal* esan nahi du ingelesez (ohar guztiak itzultzailearenak dira).

ilunkorrei ere. Poeta batentzako lana da. Winesburgen, eskuiek atentzioa pizten zuten, haien mugitu behar hutsa zela kausa. Haiei esker, Wing Biddlebaum kapaza zen egun bakarrean ehun eta berrogei galoi-laurden marrubi biltzeko. Bereizgarri bihurtu zitzaizkion, eta ospea eman zioten. Gainera, groteskoagotu egiten zuten aurretik ere nortasunez groteskoa eta gordezalea zen pertsona. Winesburg harro zegoen Wing Biddlebaumen eskuez, harro zegoen bezalaxe White bankariaren harrizko etxe berriaz eta Tony Tipez, Wesley Moyerren garaño alazanaz, zeinak Clevelandeko trosta-lasterketak irabazi zituen udazkenean.

George Willardek frankotan izan zuen eskuez galdetzeko gogoia. Inoizka, jakin-gose ia eutsiezin batek mendean hartzen zuen. Seguru zegoen esku haien mugitu behar estrainioak eta bistatik gordetzeko joerak motiboren bat izango zutela, eta Wing Biddlebaumi gero eta errespetu handiagoa izateak bakarrik galarazten zion jo eta galdezka hastea, gogoia sarritan izanagatik ere.

Galdetzeko zorian egon zen behin. Soroetan pasieran zebiltzan biak, udako arratsalde batean, eta errio bazterreko belarretan eserita geratu ziren. Wing Biddlebaumek arratsalde guztia pasatu zuen hizketan, inspiratuta bezala. Hesi baten parean gelditu zen, eta, okil erraldoi bat bezala goiko oholari kolpeka, George Willardi kargu hartzen aritu zitzaion, aldarrika, gazteak bere ingurukoei gehiegi eragiten uzten zielakoan. «Heure burua suntsitzen ari haiz», esaten zion. «Bakarrik egoten eta ametsetan bizitzen ohituta

hago, eta ikara ematen ditek ametsek. Herri honetako beste guztiek bezalakoa izan nahi duk. Haiek hizketan entzun, eta imitatzen saiatzen haiz».

Urertzeko belarretan, Wing Biddlebaum harira bueltatzen ahalegindu zen. Boza oroiminetan leundu zitzaion, eta, konformidadezko suspirio batekin, berriketa noragabe batean sartu zen, ametsetan galdu balitz bezala.

Ametsoatik, Wing Biddlebaumek irudi bat marraztu zion George Willardi. Irudi hartan, gizakiak urrezko aro pastoral batean-edo bizi ziren. Zango-beso ederreko mutil ugari zetozen landa-parte berde eta zabal batetik, batzuk oinez, beste batzuk zaldiz. Gazteak samaldaka zetozen zuhaizpean eseritako gizon zahar baten oinetan biltzera, jardin koskor batera, eta gizona solasean ari zitzaien.

Wing Biddlebaum zeharo inspiratu zen, behingoagatik eskuak ahaztuta. Poliki-poliki atera ziren, eta George Willarden sorbaldetan pausatu. Zerbait berria eta ausarta jaio zitzaion hizketan ari zen bozari: «Ikasitako guztia ahazten saiatu behar duk», zioen gizon zaharrak. «Ametsetan hasi behar duk. Hemendik aurrera belarriak sorgortu behar dizkiok bozen ardailari».

Hizketa etenda, Wing Biddlebaumek luze eta serio begiratu zion George Willardi. Distira zeukan begietan. Eskuak goratu zituen mutikoa atzera laztantzeko, eta horrorezko begiratu batek hartu zion aurpegia.

Gorputza konbultsioz bezala astinduta, Wing Biddlebaum kolpetik zutitu zen, eta eskuak galtzen patrikan hondoratu zituen. Begiak malkotu zitzaizkion. «Etxera behar diat. Ezin diat hirekin gehiago hitz egin», bota zuen nerbioso.

Atzera begiratu ere gabe, gizon zaharra muinoan behera presatu zen, larrearen bestaldera, George Willard ikara batean utzita belarretan, zur eta lur. Beldurrez dardarka, mutikoa, zutitu, eta herri aldera abiatu zen kamiotik: «Ez diot eskuei buruz galde-tuko», pentsatu zuen, hunkituta, gizonaren begietan ikusi zuen ikaraz akordatu zenean. «Susmo txarra hartzen diot, baina ez dut jakin nahi zer den. Esku horiek zerikusia dute denoi digun ikararekin».

Eta arrazoa zuen George Willardek. Entzun dezagun, labur batean, eskuen istorioa. Akaso guk horretaz hitz egitea aski izango da poetaren batek konta dezan eskuon eraginaren istorio ezkutu eta miragarria, ez baitziren haizetan harrotutako estandarte promesaz beteak besterik.

Gaztetan, Wing Biddlebaum maisu aritu zen Pensilvaniako herrixka batean. Garai hartan ez zuten Wing Biddlebaum izenarekin ezagutzen, baizik eta beste izen ez hain eufoniko batekin: Adolph Myers. Adolph Myers gisa, bere ikasleek estimazio handia zioten.

Adolph Myersek berezkoa zuen gazte-jendearen irakasle izateko jaidura. Halakoxe gizonak, urriak baitira eta gaizki entendituak, hain izaten dute aginpide amultsua, non ahuldade atsegingarri baten

antz ematen baitute. Sentimendu handia izaten dute zaintzapean dituzten mutilentzat, emakumerik finenek gizonei izaten dieten maitasuna bezalakoa.

Eta hori ere baldar samarrrik esana dago. Poeta behar da hemen. Adolph Myers bere ikasleekin ilunbistan paseatzen ibilitakoa zen, baita eskolako eskaileretan arrastu arte geratutakoa ere, amets-suerte batean galduta. Haren eskuak hara eta hona ibiltzen ziren, mutikoen sorbaldak laztanduz, haien kalpar nahasietan jostari. Hizketan, boza leuna eta musikala bihurtzen zitzaion. Boz hori ere laztan bat zen. Eskuak eta boza, sorbalden laztantzea eta ileen ukitzea; horiekin guztiekin, maisuak eginahalak egiten zituen nolabait ere buru gazte haietan amets bat sartzeko. Bere atzamarren laztanekin espresatzen zen. Halako gizonen indar bizi-sortzailea ez da zentralizatu egoten, baizik eta barreiatua. Maisuaren eskuen laztanekin, mutikoek duda eta mesfidantza galtzen zituzten, eta ametsetan hasten ziren.

Eta gero tragedia etorri zen. Eskolako mutiko erdi atzeratu bat maisu gazteaz enamoratu zen. Ohean, gauetz, esan ezinezko gauzak imajinatzen zituen, eta goizean han hasten zen ametsak kontatzen, egia zirelakoan. Akusazio bitxi eta ikaragarriak atera ziren haren ezpain erdi erorietatik. Pensilvaniako herrixkan dardaraldi bat izan zen. Gizonek Adolph Myersi buruz izandako duda-muda gorde eta ilunak uste sendo bihurtu ziren.

Luze gabe ailegatu zen tragedia. Ohetik dardarka aterarazi zituzten mutikoak, eta galdekatu. «Besarkatu

egin ninduen», esan zuen batek. «Haren behatzak beti ilean ibiltzen zaizkit», beste batek.

Arratsalde batean, herriko gizon bat, Henry Bradford, taberna baten jabea, eskolako ateraino joan zen. Adolph Myersi patiora hots egin zion, eta ukabilka hasi zitzaion. Haren behatz-koskor gogorrek zenbat eta gehiago kolpekatu maisuaren aurpegi izutua, orduan eta amorru biziagoa sentitzen zuen. Atsekabez builaka, haurrak hara-hona zebiltzan korrika, intsektuak bezala aztoratuta. «Erakutsiko diat, bai, nire mutikoari atzaparrak gainean jartzen, pizti zikina!», egin zuen orro tabernariak, ordurako ukabilka aritzeaz nekatuta eta patioan barrena ostikoka hasita.

Gau hartan bertan uxatu zuten Adolph Myers Pensilvaniako herrixkatik. Kriseiluak eskuan, dozena bat gizon etorri zitzaizkion etxeko ateraino, zeinean bakarrik bizi zen, eta janzteko eta ateratzeko agindu zioten. Euria ari zuen, eta haietako batek soka zekarren eskuan. Maisua urkatzeko intentzioa zuten, baina zerbait ikusi zioten barruan, zerbait hain ttikia, zurixka eta pena-emangarria, ezen bihotzak ukitu zizkien eta eskapatzen utzi zioten. Ilunpetan lasterka zihoala, segika joan zitzaizkion, beren ahuleziaz damututa, eta irainak eta makilak eta lokatz-bola bigunak bota zizkioten, maisua ilundian builaka zihoala, gero eta lasterrago.

Adolph Myers hogeitau urte bizi izan zen Winesburgen, bakarrik. Egiatan, berrogei baino ez zituen; itxuraz, berriz, hirurogeita bost. Ohio ekialdeko herri batetik ospa egiten ari zela estazio batean ikusitako ja-

ki-kutxa batetik atera zuen *Biddlebaum* izena. Bazuen izeba bat Winesburgen, oiloak hazten enplegatzen zen emakume bat, zaharra eta hortzeria belztua zuena, eta hura hil arte bizi izan zen harekin. Urtebete gaixorik pasatu zuen Pensilvaniakoaz geroztik, eta bere onera itzulitakoan jornalari aritu zen soroetan, lotsatu-antzik eta eskuak gordetzeko eginahalak eginez. Zer pasatu zen ez zuen konprenitzen, baina sentitzen zuen eskuak zituela kulpante, ikasleen aitek behin eta berriz aitatu zituzten eta. Tabernariak «gorde esku horiek!» orro egiten zion eskolako patioan amorrudantzan zebilela.

Amildegi ertzeko bere etxeko portxean, Wing Biddlebaumek atzera-aurrera segitu zuen, harik eta eguzkia sartu eta soroaren bestaldeko kamioak itzal grisetan urtu ziren arte. Sartu zen etxera, moztu zituen ogi-xerra fin batzuk, eta ez tigan busti zituen. Apaldu zenean gaueko trenaren triki-traka, eguneko marrubi-uzta urrutira zeramala, eta berritu zenean uda-giroko gauaren isila, atzera berriz portxean ibiltzera joan zen. Ilunetan, eskuak ez ziren ikusten, eta isilik geratu ziren. Artean ere mutikoarekin egoteko irritsa zeukan, hura baitzuen hurkoaren maitasuna adierazteko bidea, baina irrits hori bere bakardadearen eta esperoaren parte bihurtu zen berriz. Lanpara bat piztu, eta Wing Biddlebaumek bere otordu xumearekin zikindutako plater urriak garbitu zituen, eta kamaina ireki zuen portxerako atearen aurrean, lotarako erantzeko pronto. Ogi-papur zuri batzuk jaso gabe geratu ziren lur garbitu berrian, mahai

ondoan. Lanpara aulkitxo txiki baten gainean jarrita, papur biltzen hasi zen, abaila handian banaka-banaka ahoratuz. Mahai azpiko argi-parrasta lodian, giza forma belaunikatuak apaiz bat ematen zuen, elizako lanen batean ari. Behatz urduri eta berritsu haiek, argi-izpitik sartu-irtenean, arrosarioaren hamarrekoak korritzen zituen debotoren baten behatzak izan zitezkeen.